

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko apirilak 15 • 165. zka.

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABALETA

## Txakurrak modan

Animalien eskubideak eta jabeen betebeharrak

Iturririk iturri: Ergiña Urzelai ■ Iritzia: Felis Beltran de Heredia ■ Kirolak: Inurrategi anaiak





# AZKARATE AROSZTEGIA


ARETXABALETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

ARDATZA  
*Brikolaketa*

*Irudimenarekin, eskulanak egiteko  
kutxak, kajonerak, bandejak,  
pertzeroak, komuneko altzariak...  
margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez  
gero, geuk margotuko dizkizugu.*

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Tfnoa.: 943 79 18 44  
Faxa: 943 79 29 41  
E-mail: info@eguzkigraf.com

Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABALETA  
Industrialdea F-0-4





# Zer iruditzen zaizu zakurrak edukitzearen moda? Arau batzuk bete beharko lituzkete?

## Juan Diego Cebrino

(Langilea)

Bakoitzak nahi duena egin dezakela uste dut. baina zakur guztientzat arauak egotea beharrezkoa iruditzen zait.

Ez dakit nork jarriko beharko lituzkeen arauok baina lotuta eramatea, esaterako, oso garrantzitsua da.



## M<sup>a</sup>Karmen Uribetxebarria

(Langilea)

Niri zakurrak baserrian gustatzen zaizkit, kalean batere ez.

Arauak behar beharrezkoak direla uste dut, lorategiak garbi edukitzeko baitira eta ez zakur kakez beteta.



## Elisabeth Aldalar

(Langilea)

Zakurrak edukitzea? ba, arrisksuak direlako debekatzearena guztiz kontrakoa naiz, zakurra jabeak hazten duelako eta berak ez du errurik.

Arauak ez ditut beharrezkoak ikusten, jabea da kontsekuentea izan behar dena.



## Koldo García de Albéniz

(Langilea)

Zakurrak kale etxeetan edukitzea ez zait gehiegi gustatzen.

Bai, arauak beharrezkoak dira garbitasunari buruz... baina gero hauek betetzea ez da hain erreza izaten.



e s k u t i t z a



## MILA ESKER HAMAIKA LAGUNI

“Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz” lemapean burutu berri dugun Korrika 11k gure herrian zelako arrakasta izan duen ikusita, Deba Garaiko AEK eta Korrika ezin da geratu partaide guztiei eskerrak eman gabe, Atxabaltak eman duen erantzuna izugarria izan da eta.

Hamaika lagun batuz eta eguraldia zein ordutegia ikusita, “bost axola guri” esanik, lasterketa zaratsua eta jendetsua izan genuen, bai goizeko korrika txikian nola gaueko ordu txikitan heldutako KORRIKA 11n.

Eta hau guztia zergatik, denok batu garrelako euskararen alde eta elkarri lotuta, denok eskutik, gure herrian euskararen aldeko konpromisoa dugula erakutsi nahi izan dugulako.

Korrika bera da nabarmen ikusi egiten dena eta gure eskerrik beroena partaide guztiei eta kilometro erosleei; prestaketetan lan egin duten hainbat eta hainbat laguni; batzordeetan zein ekitaldietan, txukunketan zein diru laguntzak ematen, animoak ematen zein ekitaldietan parte hartu duten guztiei; eta egon ezin izan dutenak ere ahaztu gabe, berriz ere esker bero-bero bat Atxabalta herriari, “PORTAU ZAIE ETA!”

“Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz”


Deba Garaiko AEK



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** EguzkiGRAF, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta



## Giro polita Korrika 11an

Korrika martxoaren 25ean goizeko 4,50 aldera pasatu bazen ere gure herritik, jendea ez zen ohean geratu. Izarak alde batera bota eta jende ugari pilatu zen, benetan giro polita sortuz. Atxabaltarrok Mugarrin hartu genuen euskararen testigua, eta 3 Km.tan zehar herriko hainbat taldek eraman zuten. Batzuk gainera, animatuenak eta ahal zutenak, Eskoriatza, Aingeru Guarda edo Arabaraino joan ziren testiguari laguntzera.



## Atxabaltarrak manifestazioan

Joan den hileko azkenengo zapatarako Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herriratzeko plataformak manifestaziorako egindako deialdia jende ugari erantzun zuen. Herriko talde gehientsuenek bultzatu eta babestutako kale irteera honek herri guztia zeharkatu zuen. Ekitaldiari amaiera emateko M<sup>a</sup> Asun Bengoak, Senideak-en izenean eta Joseba Larrinagak plataformarenean idatzi bana irakurri zituzten.

Apirilaren 20an bestalde, plataforma honen aurkezpen ofiziala egingo da prentsa aurrean. Arratsaldeko 7etan udaletxeko ganbaran izango da ekitaldia.

## Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendiren batzar orokorra

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak pasa den hilaren 27an ohiko batzar orokorra ospatu zuen. Mikel Uribetxebarria lehendakariak komunikabideei buruzko sarrera egin ostean, Gotzone Arrese diruzaiak 1998ko kontuak berrikusi zituen baita 1999ko aurrekontuak aurkeztu ere. Mirari Altube Aretxagazetako erredakzio arduradunak, berriz, Aretxagazetan 1998an burututako ekintzen eta 1999rako asmoen berri eman zuen. Bertan Aretxagazetako batzordekideen aldaketa ere burutu zen, bi urte egin ostean Iruñe Iturbe eta Al-

berto Izagirre atera eta hauen ordeztu Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa eta Pello Zubizarreta sartu dira Azkenik Mikelek Atxabalta telebistaren martxari buruz hitzegi zuen.


### Galdera ugari

Normaltasun osoz burutu zen batzarrera oso bazkide gutxi urreratu zela aipatu behar da. Hala eta guztiz, galdera ugari izan ziren, gehientsuenak telebistaren martxari buruz-

koak eta Mikel jakinmin hau asetzen saiatu zen.




Mikel Uribetxebarriak batzarra zuzendu zuen



Basabe  
Industrialdea C Pab.  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

Aholkularitza

*Okindegia - Gozotegia*



*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina



## Koruetako eliza inaugurazioaren zain Santiago apostolua berriz aldarera itzuli da

Gabonetan Izurietako eliza konpondu ostean Koruetakoari eman zitzaion hasiera eta lau hilabetetan zehar lanean aritu ondoren inauguratzea besterik ez da falta, momentuz jarri gabe badago ere data.

### Konponketak barrualdean

Kanpokaldean aldaketa haundirik ez du izan teiltua orain urte batzuk konpondu baitzen eta egoera onean aurkitzen denez, ikututxo batzuk besterik ez bai-zaizkio egin; kanpandorreko erlo-juua izan da horma margotzeaz gain konpondu den bakarra.

Barruan, berriz, argitasun ego-  
kia jartzearekin batera hormak berriztu dira kupulako nerbioetako harria berreskuratuz eta itxita zegoen leiho gotikoari bidriera jarri zaio, beronek, modernoa izan arren, erromesen ezaugarri den kontxa eta Santiago apostoluaren gurutzea ditu.

Era berean santuak txukundu egin dira eta alda-rean zegoen Errosarioko Amabirjina-ren ordez prozesioetan atera ohi zen Santiago apostolua jarri da, Amabirjinari txo-ko berezia

eginez.

### Erretaula berezia

Aldareko erretaula, berriz, konpondu gabe geratuko da momentuz, Santiago apostoluaren bizitza kontatzen duen Gipuzkoako plateresko gisako erretaula bakarra denez Foru Aldundiaren esku baitago berau konpontzea. 50 zm. inguruko Santa Ines gotiko berezi bat ere bada Koruetan baina momentuz Elizbarrutiko museoan aurkitzen da. Hemendik laupabost urtetara ekarri ahal izango da berriz baina horrek zenbait segurtasun neurri hartzea suposatuko du, bere balioa baitu iruditxo honek.

Diru kontuak oraindik zehaztu ez badira ere eta Foru Aldundiak, Udalak eta auzotarrek laguntza haundiak eman badituzte ere zor dexentea geratuko den susmoa du-te parrokiako arduradunek, poliki-poliki ordaintzea espero den zorra.



Balio haundiko erretaula du Koruetako elizak

## Kepa Urra Valdemoron

Kepa Urra, Puerto de Santa Ma-  
riatik ekarri ostean azken hilabe-  
teotan Langraitzen egon bada  
ere, orain Madrileko Valdemoro  
kartzelara eraman dute. Hasiera  
batean nahastea sortu bazen ere  
nora eraman zuten inork ez ze-  
kielako azkenean Valdemoron  
dagoela jakin da epaiketa batean  
lekuko gisa deklaratu beharra  
duelako. Momentuz ez daki zen-  
bat egun egon beharko den ber-  
tan baina epaiketa bukatu ostean  
berriz Langraitzera bueltatuko  
dutelakoan daude familiakoak,  
inolako ezusterik ez bada gerta-  
tzen behintzat.

## Durana 13ko etxearen berriztapena

Aspaldi espero bazen ere azke-  
nean astelehen honetan, hilak 12,  
Durana 13ko etxebizitza berriz-  
tatzea onartu zen gobernu batzor-  
dean. Jakina denez etxebizitza  
hau ez da salgai jarriko, Gipuz-  
koako ezindu psikikoekin lan  
egiten duen Atsegi fundazioari  
emango zaio. Bertan pertsona  
hauek gizarteratzen lagunduko  
duen programa landu eta aurrera  
eramatea espero da.

Era berean berriztapen lanok di-  
rela eta, egunkariak saltzen  
dituen denda eta Katxoren ilea-  
paindegia lekuz aldatu direla ai-  
patu behar da, lehenengoa kale  
berean beste aldera pasatu da  
lehengo Etxeandia dendara eta  
bigarrena ere Durana kalean  
beheraxeago kokatuko da.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55





## Ordubeteko lanuztea

Hainbat euskal alderdi politiko eta sindikatuk eskatu bezala, Kurtzebarri eskolako irakasle eta udaletxeko langileekin batera, herriko enpresa eta komertzio askok, ordubeteko lanuztea burutu zuten astelehenean. Bozketa egin ostean hala nahi izan zutenek eguerdiko 12etatik ordu bata bitartean lan egiteari utzi eta kontzentrazio ixila egin zuten berain lantokien kanpokaldean. Udaletxe aurrean jende ugari bildu zen bertako langileez gain.

## CIM hizkuntz akademiak 25 urte

Arrasaten hizkuntzak erakusten jarduten duen CIM akademiak 25 urte beteko ditu aurten. 25 urte ez direla nolnani betetzen eta antzerki saio eta filme emanaldiak urteurren berezi hau ospatzen jadanik hasiak badira ere, oraindik ekintza ugari antolatzeke asmoa dute.

Besterik gabe, larunbat honetan, hilak 17, CIM interesatu guztientzat zabalik egongo da arratsaldeko 5etatik 7,30ak bitartean. Egun honen helburua Arrasateko CIM-eko egoitza ezagutaraztea da, eta, hori dela eta, luntxa eta opari txiki bana emango zaie bertara hurbildutako guztiei. Bukaeran

zozketa txiki bat ere egongo da.

Datorren maiatzaren 3rako, berriz, kompetentzia interkulturalari buruzko hitzaldi bat antolatu da izenburu honekin: "modan dagoen terminua edo merkatu internazionalan emaitza hobekak lortzeko instrumentua?" Enpresetako jendeari zuzendutako hitzaldia izango da eta Arrasateko CIM-eko egoitzan emango da arratsaldeko 6etatik 7,30etara bitartean. Amaieran luntxa eskeiniko zaie bertan izandakoei eta bidaia baten zozketa ere egingo da.

Momentuz besterik ez bada ere urtea amaitu bitartean ekintza ugari antolatu eta aurrera eramango dira.

## Odol emateak

Hasiak dira urtero bezala udaberri inguruan Arabako Odol Emaileen Elkartek unitate mugikorraren bitartez Aretxabaletan egiten duen odol batzen. Apirilaren 6 eta 13an Osasun Zentruan egon ostean hurrengo asteartean, hilak 20, emango die amaiera. Oporrak direla eta jendea eman gabe geratu bada oraindik badu bere aukera, arratsaldeko 4,30-etatik 8etara bitartean Osasun Zentruan hain zuzen. Gaiak duen garrantziaz jabetzea nahiko luke Arabako Odol Emaileen Elkartekoei, jendea beldurrik gabe hurbildu eta odola ematera animadadin. Hurrengo odol emateak, berriz, udazkenean izango dira urria inguruan.

## Misio taldeko zozketa berezia

Parrokiako sendotzako taldeetako gazteek Mexikoko kaleko haurrentzat dirua biltzeko antolatutako zozketa bereziak badu irabazlea. Apirilaren 4an egindako zozketan 0003 zenbakia atera zen eta berau Pakita Iturbek erosi zuenez pazko-bildotsa berarentzat izan da.

Diru kontaketa zehatza egin ez bada ere 80 mila pezeta inguru bildu direla aipatu dute misio taldekoek, eta, era berean, gazte hauek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei borondate onez parte hartu dutelako diru biltze honetan.

**ERREKABARREN**  
MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43



# Udan hasiko dira Elgeako haize erroten lanak

## Udaletxera oraindik ez da lanok hasteko baimen eskaerarik heldu

Euskal Herriko lehenengo haize errota Elgeako mendilerroan jarriko dira, Arabako ipar-ekialdean kokatutako Barrundia udalerrian eta Gipuzkoako hegoaldean, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiko lurretan hain zuzen.

### Arabako Foru Aldundiak baimetza

Lanok hasteko baimena lortzea luze joan bada ere Arabako Foru Aldundiak martxoan bukaeran baimetza eman zion proiektu honi eta hau, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Ingurugiro sailek emandakoei batzen zaie. Orain udaletxeren baimena besterik ez da falta. Hala eta guztiz haize errota jarriko dituen "Eólicas de Euskadi" enpresaren esanetan uda aldera jadanik lanak hastea espero da.

Jose Mari Segovia, Aretxabaletako hirigintza saileko teknikariaren esanetan Ingurugiro sailak "Eólicas de Euskadi" aurkeztutako proiektua onartu zuen baina zenbait aldaketa egiteko konpromesuz. "Aldaketa hauek aurkeztu ostean ez dugu beste berririk jaso Ingurugiro sailetik eta udaletxera ere ez digute lanak hasteko baimen eskaerarik egin".

### 13 haize errota Gipuzkoan

Jarriko diren 40 haize erroretatik 27 Arabako lurretan geratuko dira eta 13 Gipuzkoan. Felix Ormazabal diputatuak parke eolikora egin beharreko sarreraren egokitzapen eta mantenuaz enpresa promotorea arduratuko dela ziurtatu zuen. Lanok amaitzean,




Datorren urte hasieran energia sortzen has daitezke

### 66 milioi kilowatio orduko


Elgeako parke eolikoaren kostua 3.800 milioi pezetakoa izango da eta 66 milioi kilowatio orduko lortzea urtean espero da, 100.000 pertsonen egunero kontsumitzen duten argia hain zuzen. Haize errota bakoitzak 59 metroko altuera eta 28.500 kiloko pisua izango du. Beraien arteko distantzia, berriz, ehun metrokoa izango da.

Ezusterik ez bada gertatzen eta lanok udan hasiz gero parke eolikoa datorren urte hasieran has daiteke energia sortzen, eraikitze lanek zortzi hilabete besterik ez baitute iraungo.



Hamairu haize errota jarriko dira Gipuzkoako lurretan


gainera, ingurunea txukundu beharko du honek eta sare elektrikoa lurpetik joango da. "Eólicas de Euskadi" enpresak haize errota jarri behar diren lurren jabeen 200.000 pta. ordainduko die urtean haize errota bakoitzeko.



- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala  
Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26



Bere bezeroen zerbitzura  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72



Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44



Otalora, 10  
Tfnoa: 943 79 57 47  
Aretxabaleta



## Aerobitoia Mitch hurakanak eragindako kaltetuentzat



Hiru orduz luzatuko da aerobitoia

“Mugi zaitez Ertamerikaren alde” lemapean, datorren larunbatean, hilak 17, kirol ekitaldi bitxia izango da Arrasateko Iturripeko kiroldegian.

Izan ere, Arrasateko Lirain emakume-gimnasioak Aerobitoi bat antolatu du Arrasateko Udala, Arrasa-

te Kirolak, Kutxa eta Jose Hernandez edari banatzailearen laguntzaz, joan zen urtearen bukaeran Mitch izeneko hurakanak Nikaragua aldean eragindako kaltetuentzat dirutza batzeko eta bidaltzeko asmoarekin. Dirutza hori Ingenieros Sin Fronteras izeneko Gobernu-

Kanpoko Erakundeak bideratuko du. Kaltetuei ur-putzuak eta, ahal den neurrian, etxebizitzak eraikitzen lagunduko zaie diruarekin. Aerobitoia arratsaldeko 4retatik 7etara bitartean gauzatuko da eta 10 monitorek jardungo dute saioa gidatzen, lau Lirain gimnasiokoak eta gainerakoak Gasteizko hainbat gimnasiotatik hurbildutakoak.

Hiru orduko saio luze horretan edonork hartu ahal izango du parte eta horretarako kirol ekitaldia izango den kiroldegian bertan eman beharko du izena 1000 pta. ordainduz. Jarritako helburua lortzen laguntzeaz gain, Astore kirol-entitateak eginiko kamiseta bana emango zaie operari gisa partehartzaileei. Ekitaldia ikustera doazenentzat, berriz, hainbat operari zozketatuko dira.

Joaterik ez baduzu baina helburuarekin bat bazatoz Lirain gimnasioako 943795217 zenbakira deitu ahal duzu zure diru laguntza emateko.

### Joxemi Elizburu: “Ez nago momenturik onenean”

Joxemi Elizburuk Fuenlabrada taldeko txirrindulariak Euskal Herriko txirrindulari itzulia korritu berri du aurten bigarren aldiz. Bere adierazpenetan itzulia bukatu duen arren, ez da batere ondo aritu. “Fisikoki ez naiz ondo aurkitzen, eta ondorioz, atze samarrean ibili naiz”. Era berean iaz izan zuen gaixotasunetik ez dela guztiz errekuperatu adierazi digu.

Bestalde, itzuliaren inguruko balorazioa egiterakoan, hau iazkoa baino bigunagoa izan dela gehitu digu. Hala ere, Lekunberrin bukatu zen itzuliari oso gogorra iritzi dio.

Euskal Herriko itzuliaren ondoren, Joxemik Portugalerako bidea hartuko du datorren astean eta ondoren Euskal bizikleta izango du

aurrez-aurre.

Hurrengo itzuli hauetarako osasunak orain artean baino gehiago lagunduko dion itxaropena du, karreretan ondo erantzun ahal izateko.

### Jon Lete hirugarren Elgoibarren

Dorletako Ama txirrindulari eskolako eta Arrasate kirolak taldeko Jon Letek hirugarren postuan helmugaratzea lortu zuen joan den asteburuan Elgoibarren burutu zen karreran. Karrera honetan lehen eta bigarren mailako infantilek hartu zuten parte. Irabazlea Daniel Maestro Iberdrola taldekoa izan zen. Honen atzetik helmugaratu ziren Jon Lete hirugarren postuan eta bere taldekideak: Markel Lasaga 5. postuan, 7. Jose Galán, 9. Eddy Pérez eta Mikel Arregi 12. tokian.

Hurrengo karrera etxean izango dute, datorren zapatuan, hain zuzen. Aretxabaletako industrialdean izango da arratsaldeko 4etatik aurrera.

### Pala eta pilota txapelketak aurrera

Pala eta pilota txapelketa aurrera darraite. Pala ihardunaldiei dagokienez, semifinalak jokatzen hasiko dira aurki baina oraindik B taldean partida bat gelditzen da jokatzeke. A taldeko lehen klasifikatuak Jon Alberdi eta Iñigo Agirrebeña bergararrak izan dira eta bigarren bikotea Edorta Antxia eta Gorka Madinabeitia.

Pilotan ihardunaldi bakarra gelditzen da final laurdenak jokatzen hasteko. A taldean Oier eta Xabier Sarasuak amaitu dute lehen postuan eta B taldean, berriz, Egoitz Madinabeitiak eta Aitor Ziardegik.



# Ergiña Urzelai

## Kolaboratzaile Hondurasen

Aspaldiko ametsa zuen Amerika aldera joatea eta azkenean baita lortu ere; sei hilabete pasa ditu Guatemalarekin muga egiten duen Hondurasko "Copa Ruinas" herrialdean eta berriz bueltan da Aretxabaletan.

Hankak hemen baditu ere burua itsasoaz bestaldean du oraindik eta bihotzak, berriz, lehenbailehen bueltatzeko agintzen dio.



**- Nola bururatu zitzaizun joatea?**

- Urteak dira ideia honi buruan bueltaka ari nintzaiola. Majisterioko ikasketak bukatu ostean zera pentsatu nuen "orain edo sekula ere ez" eta hemen lanean hasi aurretik hara joatea erabaki nuen. GKE (ONG) ezberdinetara jo nuen joan ahal izateko baina ez zidaten inolako erreztasunik eman. Azkenean han zegoen mutil baten berri eman zidaten, berarekin kontaktuan jarri eta baiezkoa eman zigun; horrela joan ginen Eskoriatzako beste bi eta ni.

**- Zein zen zure lana han?**

- Hasiera batean irakasle lanak betetzera joan nintzen, helduen irakasle izatera baina ondoren denetik egitea tokatu zait.

**- Nolako jendea da?**

- Zonalde honetakoak maia indigenak dira eta hauen barruan "txortis" taldekoak. Mendian bizi dira eta ez daukate ezer. Egur eta lastozko etxeetan hamabi bat pertsona bizi dira eta lurra landuz ateratzen dute bizimodua, artoa eta frijolak landuz. Lur hori berez beraiena izan arren gaur egun terratenienteen esku dago eta honi alokairua ordaindu behar diote.

**- Zer moduz hartu zaituzte?**

- Ondo, oso ondo. Herritik gertu bizi den jendea askoz zabalagoa da, atzerritar eta turistak ikustera ohituta daudelako, mendi aldean bizi direnak, berriz, askoz itxiagoak dira eta hasieran kostatu egiten da beraiekin harremanetan jartzea.

**- Mitch hurakana ere bertatik pasa zen...**

- Bai nabaritu genuen baina ni egon naizen tokian, Copan, ez zen hainbestekoa izan, haizea, euri ja-

sak, errekek gainezka... zubiak eta bideak apurtu egin ziren baina gehiago ez. Pare bat familia hil ziren baina beraien etxeetatik ez zutelako atera nahi izan. Dena dela nik uste zertxobait exageratu egin dela hemen.

**- Hemendik bidalitako laguntzak heldu al dira?**

- Zerbait bai, guri Ingalaterratik bidalitako jana, arropa... heldu zitzaigun. Dirua, berriz, ez, etxe gabe gelditu zena oraindik etxe gabe dago eta bide eta zubiak ere konpondu gabe daude.

**- Nolako laguntzak behar dituzte han?**

- Guztiaren oinarria heziketa da, ez daukate inolako heziketa eta ikasketarik. Erlijioa oso sartuta dago eta horrek ez die aurrerapausurik ematen uzten edozer kalte edo gaixotasunen aurrean "así lo ha querido Dios" erabiltzen dute, horrekin konformatuz. Esandakoa egitera ere oso ohituta daude zergatia pentsatu gabe, arrazonatu gabe; bi aldiz pentsatzen erakutsi behar zaie. Garbitasuna ere ez dute batere zaintzen eta hortik gaixotasun ugari datorzkie, beraz guztiaren ardatza heziketan dago.

**- Esperientzia honen ostean aldatu zarela uste duzu?**

- Ni ez naiz aldatuta sentitzen baina suposatzen dut zerbait baietz. Lasaiago nago hori bai, batez ere nire buruarekin, gustorago, egia da, ordea, oraindik burua han daukadala. Hara moldatzea baino askoz gogorragoa egin zait honako buelta, behar bada harako psikologikoki gertatuta joan nintzelako eta buelta ez nuelako gogorra izango zenik espero. Ez dakit noiz baina lehenbailehen bueltatzea gustatuko litzaidake proiektu asko baitaude garatzeko eta bultzatzeko.





## Udaltzaingoaren alde

**“Lan honetarako beti udaltzaingoa egon da baina honek ez du ez mediorik ezta pertsonalik ere”**

Orain urte batzuk, gure kaleetan ertzantza agertzeaz bat udal-tertxe askotan langile kopuruaren egokitzapena burutu zen. Ertzantzaren aginpide eta udalerrian bete behar zituzten funtzioen inguruan ikusmin handia sortu zen. Udaltzainak, berriz, bost izatetik hiru izatera pasatu ziren eta hauek txandaka lan egitean gehienez ere bi gelditzen dira udalerraren kargu.

Gaur, apirilaren erdian, herria hankaz gora dago kolektore lanak direla eta, inork ez daki Aretxabaletan bere kotxeaz nondik jo, kaleak inolako abisurik gabe zabaldu eta ixten dira eta noski udaltzaingoa ez da denaz kargu egiteko gai; herria kaosean murgilduta dago.

Ertzantzak herri barruko arazoak konpontzeko ez dela gai erakutsi du, beraz arazoak barrutik, geuk bakarrik konpondu beharko ditugu.

Gaur egun udalerraren kontrol (ondo ulertuta) eta herritarrenaganako atentzio beharra argi eta garbi ikusten da. Lan honetarako beti udaltzaingoa egon da baina honek ez du ez mediorik ezta pertsonalik ere.

Badakit udalbatzak ez diola arazo honi aurre egin nahi hauteskundeak gainean ditugunean. Gastea esan nahi duen edozer gauza entzutean, politikoei beste aldera birgizatzen dute; aurrekontuak

sakratuak dira, baina ez al dira garrantzitsuagoak herritarrek? Nire ustetan zergak ordainduz gero gutxieneko atentzioa merezi dugu eta konkretuki zirkulazio zerga ordainduz gero, lanak beharrezkoak izanda, gutxienez kale, norabide, seinalezatu gabeko zulo, aparkalekuen... berri eman beharko ligukete.

Nik udaltzaingoaren alde egingo nuke apostu, ahal den ordu kopuru handiena egon behar dira kalean eta asteko egun guztietan. Honek bere lanak betetzen baditu Aretxabaletak nabaritu du eta diru kostua ez da hain handia izango herriko haziarentzat.

Udaltzainek etxeetako obrak zaindu behar dituzte eta horrek herritarrok hirigintza sailak jarritako araudia errespetatzea esan nahi du; trafikoa zaindu behar dute, oinezkoa arriskurik gabe ibili ahal izateko, eta debekatuta dagoen lekuan aparka ez dadin birgintatu behar dute, gure herriak beste itxura bat izan dezan; modan dagoen zakurrak edukitzea zaindu behar dute... Hitz batean bere lana bete dezatela, beraiei buruz dugun irudia kalean gora eta behera pasian aritzea, multa bat edo beste jartzea (hurbilean tokatuz gero gainera arrazoirik gabe) eta udaletxeko mezuak eramatea baita.

Felis Beltran de Heredia

**M**  
**MEMESA**  
*Industri hornidurak*  
Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

**OSKAR**  
HARATEGIA  
Loramendi, 1  
☎ 943 79 71 69

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK  
**RKU**  
**URKULU, S.L.**  
Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**PAGALDAI**  
Opari denda  
Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA



# Txakurren arazoak noiz konponduko dira?

Azken hilabeteotan, gure kaleetan gero eta txakur gehiago agertzen ari dela eta tentsio giroa bizi da gizartean. Beti egon da, ordea, arazoren bat edo beste lagun egin ohi duten animalia hauekin beraien, kale eta lorategietan sortzen dituzten zikinkeriak, bizilagunei eragozpenak...

Guzti hau zaintzea udalaren ardurua da baina udaletxe batzuk, gureak esaterako, ez du langile egokirik gero eta gehiago nabarmentzen ari den fenomeno honi jarraipena egin eta zaintzeko.



Txakurra hasiera batean babes eta lanerako animalia zen gure baserrietan. Ondoren herrietan agertzen lagun gisa eta modek arraza mota ezberdinak ekarri dizkigute garai ezberdinetan. Momentu honetan borrokarako itxura izanik tankera ederreko baina errespetua sortarazten duen arrazari tokatu zaio txanda; honi zenbait lekutan gertatutako erasoak gehituz gero, alarma kalean da.

## ANIMALIAK BABESTEKO LEGEA

1993ko urriaren 29an Euskal Legebiltzarrak "Animaliak Babesteko Legea" onartu zuen. Bertan animalien eskubideez gain betebeharrak jasotzen dira. Gai honekin sensibiltzatuta dauden udalerriek, udal ordenantzak atera dituzte bertako artikulua garatuz eta interes berezia duten gaiak azpimarratuz. Deba, Mutriku, Zarautz edo Donostia bezalako herri turistikoek beren ordenantza dute, arazo hau ondo lotuta izatea interesatzen bai-

tzaie. Aretxabaletan ez dago ordenantzarik, ez da inolako zainketa-rik egiten eta gero eta txakur gehiago dago herrian. Hauetako egunen batean udaletxeak erabakiren bat hartu beharko du gai honen inguruan.

**Udalaren eginkizuna  
izango da  
Eusko Jaurlaritzako  
Nekazaritza eta  
Arrantza Sailak  
araudi bidez zehazten  
dituen etxeko  
animalien espezieen  
errolda ezartzea**

6/1993 lege honen arabera, lorategi eta leku publikoetan txakur-  
rrak pasiatzeko seinalezaturiko  
leku egokiak jartzearen erantzule  
udal agintariak dira. Era berean  
animalien jabeek ibilbide eta leku  
publikoetan ez dadila kakik geratu  
eskatzen die lege honek.

## TXAKURRAK KAKA EGITEKO ETXE ALBOKO LORATEGIRA

Gure udalerrian, zoritxarrez, sarritan ikus daitezke txakur jabeak animaliak etxe alboko lorategira ateratzen, beren eginbeharrak egiteko. Lorazainak, lorategiak txukun izaten ahalegintzen dira baina ez dute gehiegi irauten, txakurrek ez baitakite estetikari buruz ezer. Honen errua, ordea, ez da txakurrena, jabeek zertxobait gehiago pentsatu eta kanpoaldera atera beharko lituzkete, gure kasuan gainera, zelai eta basoz inguratutako gaudenez ez baita hainbeste kostatzen.

Gure herrian zenbat txakur dauden galdetzean udaltzaingoari honek ezin izan du erantzun, ez baita-



ki. Errola Foru Aldundiaren esku dago eta berak du udalerrietara bidaltzeko ardura baina badira bi urte Aretxabaletan errola gabe daudela.

## UDALETXEAREN ARDURAK

Datu interesgarri gisa legeak zera dio "Udalaren eta Foru Aldundietako sail aginpidedunen egitekoa izango da bazterrean utzitako animaliak eta, identifikazioa eraman arren, edukitzailearen laguntzarik gabe noraezean dabilzanak jasotzea, berreskuratu, jabe berri bati eman edo hil ditzaten arte". Honetarako udaletxeek langile eta leku egokiak izan beharko litzukete edo bestela animalien babeserako erakundeekin hitzegin beraiek egin daitezen kargu.

1993ko azaroan, Deba Garaiko udalerrietan txakurtegirik ez zegoenez eta legea ez zenez betetzen, pertsona batek bere zerbitzuak eskaini zizkion Mankomunitateari lan hau egiteko; Batzordeak, ordea, ezekoa eman zion. 1998ko apirilean, berriz, zerbitzu berberak eskaini zituen eta Loiti jaunak zuzendutako batzordeak oraingoan ere ezetza eman zion.

Zerbitzu honek diru kostua suposatzen du baina animalia, jabeari itzultzerakoan edo zigorra ezarritzerako, diru kostu hau txakurraren ja-



beak ordaindu beharko luke eta udalarentzat ez litzateke ia gasturik egongo.

## JABEAREN BETEBEHARRAK

Oinarrizko lege honek, ordea, ez dizkio udaletxeari bakarrik betebeharrak ezartzen baita animalia- ren jabeari ere: osasun eta garbitasun egoera onean mantendu, bizitoki egokia ezarri, elikagai eta edariak eman osasun zerbitzuekin batera eta ariketa fisikoa eginarazteaz arduratu. Animaliak sor ditzakeen kalte, eragozpen edo ondoezen erantzule ere jabea da eta ibilbide eta leku publikoetan egindako kakak ere jaso egin beharko ditu. Galdu edo desagertu egingo balitz, berriz, ahalik eta azkarren pasa beharko du abisua jabeak.

**Bide publikoetan  
eta pertsonak ibiltzen  
diren beste leku  
batzuetan, txakurrak  
lepokoarekin eta  
uhaletik helduta  
eramango dira**

## "LASAI, TXAKUR HONEK EZ DU EZER EGITEN"

Sarritan gertatu ohi da gure herrian, korrikalari edo pasiatzen ari den pertsona batek txakur batekin aurrez aurre topo egin eta honek pasatzen utzi ez. Horrelakoetan jabeak beti "lasai, ez du ezer egiten jolastea besterik ez du nahi" erantzuten dute baina legeak dionez txakurra lepokoarekin eta uhaletik helduta eraman behar da, eta gure herrian ez da oso ohikoa. Egia da legea kasuaren arabera aplikatu beharko litzatekeela baina inork ez dauka behar ez den sustorik jasan beharrik.

Benetan polita izango litzateke kakarik zapaltzeko beldurrik gabe pasiatuz eta lorategiak lorazainek utzi bezain txukun ikusiz gure herrian bizitzea. Jabeek ere eskertuko lukete seinaleztaturiko zonalde batzutan, ondoezik sortu gabe, txakurrak aske utzi ahal izatea, hauek egindako kakak jaso eta zakarrontzira botatz. Udaletxeak, bestalde, errola bat izan beharko luke herriko animalien osasun egoera ziurtatuz gaixotasunen bat kutsatzeko arriskurik edo arazorik egon ez dadin.

Lan handia dago egiteko bai udaletxearen partetik, bai txakur jabeen aldetik eta lan honetan aurre- rapausuak ematen diren heinean herritar guztiok eskertuko ditugu ahaleginak.







10. atala: ...txakurrak dituztenek erroldatu egin beharko dituzte ohizko bizilekuetako udaletan, hilabeteko epean, animalia jaio edo erosi zenetik hasita.


**Clemente Jimenez** • “Mini” orain lau urte eta lau hilabete oparitu zidaten eta berehala erroldatu nuen, txip-a jarrea ondo iruditzen baitzait. Guk ez genuen udaletxean erroldatu, albaiteu klinikan jarri zioten txipa eta beraiek bidaltzen dituzte ondoren herriko udaletxera paperak.

Bide ona iruditzen zait, txakurra galdu edo beste edozer gauza gertatuz gero detektagailua pasatu eta berehala jakin dezakete norena den. Horrela, gainera, jabeari abisa diezaiokete.

22. atala: Bide publikoetan eta pertsonak ibiltzen diren beste leku batzuetan, zakurrak lepokoarekin eta helduta eramango dira eta zirkunstantzialki beren jabearen alboan. Mozalaren erabilera udal agintaritzak ezarriko du zirkunstantziek hala eskatzen dutenean eta inoiz haginka egin badute edo arriskugarriak direla jakiten bada.

**Mikel Errasti** • Ados nago, zein txakur mota joan behar den mozalarekin zehaztu beharra baitago. Txakurrak aske ibiltzeko zonalde batzuk egotea ere komeni da, trafiko haundiko kale batean edo jende edo ume asko dabilen leku batean bestalde, ondo lotuta eraman behar dira.

Legea egoeraren arabera betearazi behar da. Nire ustez txakurrekin mendira, buelta bat ematera, joan daiteke baina ez zait sekula burutik pasatuko poteatzera eramatea, hori ez dut ulertzen. Txakur jabeak garbitasunarekin ere kontu haundiz ibili behar dira, paseatzera joaterakoan sarritan ezin baitzara gora begira joan, lorategiak eta azerak kakaz beteta egoten direlako. Hau ez da telebistan agertzen baina problema serioa da.



12. atala: Udalak ahaleginduko dira herriko lorategietan eta parkeetan txakurrak paseatzeko eta txakurren aisialdirako leku egokiak eta behar bezala seinaleztatuak prestatzen.

**Manolo Hernández** • Makai enpresako langile bezala lorategiak zerbait utziak daudela esan dezaket, txakurrak direla eta zikinkeriz beteta baitaude. Lorategiak jartzearen alde apostu egiten den ingurune batean gaude eta pena ematen du kakez beteta ikusteak. Jendea arduratsua izan beharko litzateke eta etxe alboko lorategira atera beharrean kanpoko zonaldeetara eraman beharko litzukete txakurrak.

Udaletxeak txakurrentzako leku bereziak jartzea pentsatu beharko luke. Lorategiak konponetzen diru asko gastatzen du eta guk gure lana alperrikakoa dela ikusten dugu jabeek, txakurrak beren eginbeharrak lorategietako loreen gainera egitera ateratzen baitituzte. Hau esanaz ez dut txakurren kontra jarri nahi, jabeak zertxobait pentsatzera bultzatu nahi nituzke, besterik ez.



**ALBAITARIAREN IRITZIA: ZARUGALDE KLINIKAN** egon gara Luis Zubiagirre albaitariaren iritzia ezagutzeko.

Egia da azken urteotan txakurren igoera nabaritu dela baina kontrolik ez egotean ebaluaketa hau beren lana izugarri hazi delako egin dute; txakurrez gain, katu, txori eta dordokak ere asko gehitu dira.

Eraso txakur deiturikoei buruz modak direla dio, garai batean txakur txikiak ikusten ziren, batez ere emakumeen artean, gero Collie-ak agertu ziren eta ondoren Husky edo eskimalak. Orain Rottweile-en txanda heldu dela ikusten da. Atentzioa deitzen duten txakur ederrak dira eta horixe da hain zuzen jabe batzuk nahi dutena. Erasaldien inguruan piztu den alarma ez dela jarri duten bezain larria dio. Txakur guztiek eraso dezakete, baita txikienek ere, baina arraza honetako txakurren tamaina eta ezaugarriak direla eta, erasoaldi baten aurrean kalte haundiagoak egin ditzakete. Honek, ordea, ez du esan nahi

zakarragoak edo arriskutsuagoak direnik. Haundi hauek baino txakur txikiak sarriago egin diote haginka Luisi, hala eta guztiz errespetu haundiagoa omen die haundiei. Gaur egun jabeek beren txakurren arraza gehiago zaintzen dutela ere ikusten da.

Eusko Jaurlaritzako oinarritzako legea ondo eginda egon arren, guzti hau zuzentzeaz herriko administrazioa arduratu beharko litzateke baina kaosa da nagusi bertan. Lehenetara itzuliaz, udaletxeek ezin dute legea betearazi beraiek ez dutelako betetzen: ez dute lan honetarako pertsonalik, ezta txakurtegirik ere, ez daude txakurrentzako zonalde berezirik... Ez dago inolako kontrolik, beraz, berak ere ezin du ezer eskatu. Mallorcan pasatutakoa hemen izanez gero, hobe ez pentsatzea zer gertatuko litzatekeen.

Leintz bailaran 8.000 txakur daudela uste da, hauetatik 6.000 inguru erroldatuak egongo liriteke, hirutik bi. Gipuzkoan 55.000-60.000 egongo liriteke eta 40.000 erroldatuak.



# Felix eta Alberto Iñurrategi Iranetik Himalayara

Felix eta Alberto Iñurrategi irrikitan daude aurrez-aurre duten abentura berriari ekiteko; aurrekoengandik berezia izango da gainera. Iraneko bi menditan izango du hasiera, ondoren "Torre sin nombre" mendia eskalatu eta espedizioaren azken fasean Nanga Parbatera igoera aurrikusita daukate.

"Al filo de lo imposible"ko lantaldea eta Jon Lazkano bergararrak eta Jose Carlos Tamayok ere hartuko dute parte bidaia honetan.



Felix eta Alberto apirilaren bukaeran abiatuko dira Iraneruntz.

• **Hasiera bateko asmoa** hemendik Himalayarako bidaia ibilgailuz egitea zen baina planak aldatu egin dira. Zeintzuk dira asmo berriak?

Turkian Kurduekin dagoen egoera ez da batere ona eta turisten kontrako amenazuak bota dituztenez, bidaia Iranen hasiko da. Maiatzeko lehen hamabost egunak mendi bat igo eta beste bat eskalatzen pasako dugu Iranen bertan. Ondoren Teheranetik Islamabatera bidaia karreteraz egingo dugu, hemen "Torre sin Nombre" mendia eskalatzeko. Kilometro dexente direnez, tartean kulturalki ezagunak diren lekuetan, eraikuntzetan... grabaketa lanak egingo ditugu. Azken

**"Iranen hasiko da bidaia, ondoren "Torre sin nombre" eskalatu eta Nanga Parbat da azken helburua"**

plana uzaileko bigarren hamabostaldian Nanga Parbat-era igotzea da.

• **Bidaia luzea benetan, bide berririk zabaltzeko asmoa baduzue Nanga Parbat-en?**

Ez, Kinshofer alemanen bidetik igotzeko asmoa dugu. Bidaia luze baten azken zatia denez, eta grabaketa lanak egingo ditugunez ez dugu konplikatu nahi izan. Telebistako grabaketak garantizatu ahal izateko gainera, bidea erosoaz izateko komeni da.

• **Nolako mendia da Nanga Parbat?**

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

GARBITU S.  
COOP.

**Garbiketa orokorrak**

Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

Mobiliario  
**ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**BENGOA URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta mortzilak*

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79



# “Mendia eta abentura ia gure bizibide bilakatu dira”

Himalayan Karakorum-etik gertu kokatzen den 8.125 metroko mendia da. Kanpo basetik tontorrera desnibelik haundienetakoa duena. Zailtasun haundiko bidea da baina jende asko joaten denez, horrek asko erraztuko du gure lana.

### • Filmaketa lanek nola eragiten dute espedizioan?

Filmaketa lanek asko astuntzen dute espedizioaren erritmoa. Gainera hauek zineko formatoa erabiltzen dute eta makina astunak dira, eskema konbentzionalagoak erabili behar ditugu.

Altuera batetik gora, bestalde, guk egin behar izaten ditugu grabaketak.

### • Espedizio bat hasi aurretik informazioa batzea beharrezkoa da, nora jotzen duzue hori lortzeko?

Nanga Parbat mendian euskaldun asko egon da eta informazioa lortzeko arazorik ez dago. Juanito eta Kikekin kontsulta batzuk egin ditugu dagoeneko. Iranen egin behar ditugun igoera eta eskaladari buruz ez dugu informazio haundiegirik, baina ez daukagu horrenbeste beldur beste neurri bateko hormak direlako. Dena dela, espero genuena baino elur gehiago ei dago. “Torre sin nombre” delakoan Jon Lazkano 92an egon zen eta ezagutzen du joan behar garen ingurua. Alde horretatik, lehen eskuko informazioa daukagu.

### • Pumoriko gailurra igo zenuenetik, espedizio askotan izan zarete, zer eman dizue mendiak urte luze hauetan?

Burukomin pilo bat baina satisfazio haundia era berean. Esan dezakegu afizio izatetik ia ofizio

izatera iritsi dela.


### • Bide horretan popularrak bihurtzeak eta komunikabideek ateak zabaldu dizkizue?

Bai, erdi profesionaletara heltzeko giltzarria hor dago, komunikabideetan. Gustatu ala ez, hor barneratuta gaude. Ez da zure kasa joan eta zuk nahi duzuna egitea baina dirulaguntza eta sponsorrak zaindu beharrekoak dira, bizibidea ere hortik atera beharra daukagu eta.

### • Zerk ematen du berriz bueltatzeko indarra?

Guri betidanik gustatu izan zaigu mendia. Gogoia eta ilusioa dagoen bitartean ez dago aspertzeko eta erretzeko arriskurik. Gu gustora joaten gara eta saiatzen gara interesgarriak diren espedizioak egiten. Jakina, grabaketa lanak egin behar ditugunean, edo “Al filo de lo imposible” programarekin joaten garenean era batera mugatuta gaude. Bi urte inguru daramagu “Al filorekin” eta egindakoa ez da desgaste haundikoa izan. Nahiko lasai ibili garela esan dezakegu.

### • Aurtengo urterako baduzue beste proiekturik?



Torre sin Nombre (6.251 m.) karakorum, Pakistanen kokatzen da

Gogoia badugu eta gustora egingo genituzke buruan ditugun beste irteera batzuk. Helburu oso politak ditugu baina trabak ere hor daude. Agian udazkenerako edo negu alderako irtengo du beste proiektu batek. Gure asmoak esparru desberdinetakoak dira, 8.000koetatik atera eta eskalatzera bueltatzea, beste kontinente batzutara joatea...



## ARRUBIOA: Bi berdin ez dituzu aurkituko

Animalia berezia dugu arrubioa; kolorez bitxi, anfibioen artean ere ez ohizkoa, eta azal pozoitsudun animalia kaltegabea

Jakin badakizue anfibioek urarekiko erlazio nabaria dutela. Larba eran animalia urtar peto-petoak dira, brankia bidez arnasa ere uretan hartzen dutelarik. Ondoren metamorfosia jasaten dute eta helduak birrikak garatuz uretatik kanpo bizitzera pasatzen dira, ia espezie guztiek ur ertzetan bizi beharra badute ere; halakoak dira igelak, apoak eta uhandreak esate baterako.

**Arrubioa** (*Salamandra salamandra*) ordea berezia dugu horretan, heldutasunera heltzerakoan uretatik urrun bizi bait da, gure harizti eta pagadietan hain zuzen ere; egunez goroldio eta orbel artean ezkutaturik egon ohi da eta ilunabarrean, barraskilo, amarratz eta intsektuak ehizatzea du gustoko.

Ugaltze garaia datorrenean arrubio arrek beren pausua azkartzen dute emearen bila. Aurkitu eta arrak emearen barnean gordetako obuluak ernaltzen ditueanean hauek ez dira uretan utziak izango gainontzeko anfibioek egiten duten bezala, baizik eta emeak bere barnean mantenduko ditu larbak jaio arte. Orduan ur



Bere itxura dela eta jendeak animalia gaizkileen artean sartu izan du

putzu batetara inguratu eta bertan askatuko ditu kumeak. Arrubioa beraz *obobiparoa* dugu, anfibioen urrezko legeetako bat hautsi arren.

Arrubioak nekez gaintitzen du 15-20 zm-tako luzera. Kolorez beltza eta horia da eta izenburuan esan bezala bi marrazkera berdineko arrubiorik ez dago. Ez da, ordea, ustegabekoa apaindura hau. Kolore *aposomatikoak* (hori-beltza) dira eta bera pozoitsua dela abisatzeko erabiltzen ditu, horrela harrapakariak alde bateta-

ra utz dezan.

Bere itxuraren erruz jendeak sarritan sartu izan du deabruzko animalia gaizkileen taldean eta siniskeria faltsu horrek min handia egin dio arrubioari. Era berean bere larben bizibiderako ur garbiak aurkitzeko zailtasunak eta bertako basoek koniferoen aurtean izan duten atzerakadak ere kalte egin izan die arrubioaren populazioei.

Mikel Arroiabe

**GERIATRIA eta/edo KLINIKA LAGUNTZAILE**  
tituludun langileak behar dira

Lanean aritu izana kontuan hartuko da.  
Curriculum vitae-a ondorengo helbidera bidali:

Atsedean  
23 postakutxatila  
20500 Arrasate



Aretxabaletako Udalak  
**kultur laguntzaile** bat  
kontratatu nahi du egun erdiz  
lanean aritzeko.

Instantziak eta curriculum-ak apirilaren 28a baino  
lehen aurkeztu beharko dira udaletxean.





## Jota Apurtu taldea

aur egun, oraindik, Jota Apurtukoek taldean hildakoen aldeko meza jartzen dute, nahiz eta ordutik 50 urte baino gehiago pasatuta egon. Argazkia 1947 urte ingurukoa da, maristetako futbol zelaian ateratakoa. Garai hartan Aretxabaleta eta Eskoriatzako mutikoek jokatzen zuten futbol txapelketan sari bat baino gehiago irabazi zuen Jota Apurtu taldeak, erretratu hau 2. postua lortu ostean atera zuten. Sari txikia eskuan dutela, harro ageri dira. Mutiko talde honetatik, 15 urte baino gehiago ez baitituzte izango, gero UDA eta Mondra taldeetara joango ziren jokalaria ugari pasa zen; horien artean, Sabino Larrañaga eta Pontoni. Futboleant zazpik jokatzen bazuten ere, argazkian ageri den zortzigarrenak, Roke Mendieta, beste lan garrantzitsu bat betetzen zuen taldean: masaiari lana, hain zuzen. Begirada zorrotzuz gero, eskuarteant daukan maleta txikian taldearen izena irakur daiteke.

Goian, ezkerretik hasita: **Eduardo Urkia (Txikuri), Jose Kruz Etxebarria, Juan Luis Errasti (Kurta), Fernando Zubillaga.**

Behean, ezkerretik hasita: **Alvaro Zubillaga, Imanol Alberdi (Pontoni), Sabino Larrañaga, Roke Mendieta.**

*Argazkia eta informazioa: Alvaro Zubillaga*

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA



### MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76

### GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

### BITXITEGIA

#### MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean

Tfnoa: 943 77 13 57



## LANA

◆ Matematika, fisika, kimika eta marrazketako **klaseak ematen** dira Arrasateko San Andres auzoan. Tfnoa: 943 77 08 02

◆ Aretxabaletan 2. LOGSEko (giza-zientziak) matematikako **klaseak hartuko** lirateke. Tfnoa: 943 79 23 77

◆ Esperientzia eta informedun emakumea **pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak** egiteko prest. Ordutegia goizeko 11etatik 3etara eta arratsaldeko 8etatik 10-etara. Tfnoa: 608 97 49 72 (Rosa).

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Bizar-kentzailea.** Etxebarri.  
Erref. 17645/3.

**Injineru tekniko industrialak.**  
Urola Kosta. Erref. 17622/5.

**Logistika arduraduna.** Bilbo.  
Erref. 18505/1.

**Arotz laguntzailea.** Deba  
Garaia. Erref. 18255/2.

**2 pintore.** Bermeo. Erref.  
18369/3

◆ **Lan eskeintza publikoak.**

**Bermeoko Udala. Iturgina.**  
Titulazioa: LH I iturgintza edo baliokidea, B gidatzeko



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**

baimena, 1. HE.  
Epea: BOEn argitaratzeko zain.

### Oiartzungo Udala.

**Aholkulari ekonomista.** Titulazioa: Ekonomia lizentziaduna eta 4. HE.

**Administraria.** Titulazioa: BBB edo baliokidea, 4. HE.

### Ur zerbitzuko arduraduna.

Titulazioa: BBB, LH II edo baliokidea eta 2. HE.

Epea: 99/4/20

Oinarriak: GAO 99/3/9

### Sakanako Mankomunitatea.

**Gerentea.** Titulazioa: Goi mailakoa.

Epea: 99/4/21

Oinarriak: NAO 99/3/22

## DENETARIK

◆ Pertsiar arrazako katutxo emea salgai, txertatua eta bere kartilarekin. Tfnoa: 943 77 10 60.

◆ SS-AB matrikuladun Renault supercincin zuria salgai, oso egoera onean. 943 79 68 75 telefono zenbakira deitu.

## ETXEBIZITZA

◆ Pisu bat salgai Bedarretan, garajea hartzeko aukerarekin. Tfnoa: 639 41 70 06.

◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.

◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berritzeko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.

◆ Etxe bat erosi nahi genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21 (arratsaldetan deitu).

## LEHIAKETAK

◆ **II. Abdon Juaristi pintura lehiaketa Bergaran.** 1999ko Pentekoste jaietan Bergaran egingo den zezen jaialdia iragarriko duen kartela aukeratzeko zezen zaleak elkarteak antolatuta. Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da eta estiloa eta teknika libreak. Markorik gabe, euskarri gogorrean eta bastidorearekin aurkeztuko dira. Neurria 55x46 zm. gutxienez eta 146x114 zm. gehienez. Lanak Bergarako Errotalde Kultur Etxean aurkeztu behar dira, apirilaren 20a eta 30a bitartean.

Sari bakarra emango da maiatzaren lehen 150.000 pta. eta plaka. Sari banaketa maiatzaren 8an egingo da.

## ARETXAGAZETAN LAN EGITEKO EGUN OSOKO LANGILEA BEHAR DA AMATASUN BAJA BETETZEKO.

**Baloratuko da:** Euskara maila, informatika erabiltze mailan ezagutzea, Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea.

Curriculumak maiatzaren 5a baino lehen Aretxagazetara ekarri (Durana 11-2. solairua) edo 151 postakutxatilara bidali.



# Hautsak? Arrotzeko noski



M. J. Arretxe

Berriro ere banator bueltan. Aste Santuko oporraldi honen ondoren, berriz ere Atxabaltako hautsak arrotzeko asmoz. Ni neu energiaz karga-karga eginda natorkizue. Batzuk Benidormera, beste batzuk Salou aldera eta gutxi batzu herrian bertan gelditu gara lasai asko. Garai bateko Aste Santuetan bezala. Hori bai, Benidormera joan izan banitz, Aretxagazetako gaurko ale hau txutxumutxuz josteko aukera paregabea izango nuke. Atxabalta gehiena bertan pilatu baita.

Hemen gelditu garenok aldiz, ez pentsa gora begira gelditu garenik. Izan ere Ostiral Santuan atxabaltar askok parte hartu baitzuten Izurietara egindako Gurutz bidean. Aurtengoan jende asko bildu da ekitaldi honetan.


Kirol arloari dagokionez, aurtengo Aste Santuok eman dute zeresanik herriko zenbait kirolarien artean. **Jose Javier Barkero**, Sanseko jokalaria Nigerian baitago munduko 20 urte azpiko txapelketa jokatzen. Aurrera begira etorkizun oparoak itxaroten dio atxabaltar honi.

Txirrindularitza kontuei helduaz, aurreko alean esandako zerbait zuzentzea gura nuke. Izan ere, **Iban Sastre** txirrindularia zazpigarren postuan gelditu baitzen Gorlako igoeran. **Xabier Lazpiurrek** berriz, bederatzigarren postua eskuratu zuen. Dena dela, atxabaltarrak fin ibili ziren.

Xake arloan, berriz, **Fran Miguelek** laugarren postua eskuratu du Euskal Herriko xake txapelketan. Lehenengo postua eskuratzeaz egon bazen ere, azkenean laugarrenarekin konformatu behar izan zuen atxabaltako kasparovek. Apirilaren 25etik aurrera, Fran Estatu mailako unibertsitateko txapelketan ikusteko aukera izango dugu. Zorte on!

Kirol kontuak alde batera utziaz, telebista mundura salto egingo dut. Izan ere **Itxaro Zubillaga** atxabaltarra ETB-2ko "Lo que faltaba" saioan hasi baita lanean. Itxarok ere lehenengo pausuak Aretxagazetan bertan eman zituen. Akaso gerora nik neuk ere salto egingo dut... akaso bai edo akaso ez.

## Liburutegiko txokoa



**Izen baten bila**  
María Victoria Moreno  
Elkar, 1997  
Branka; 61

**M**util bat Galiziako bere herritik eta arazo-  
Metatik ihesi doa eta auto-stop egitean  
emakume batek hartzen du Madrilerako bidaia  
egiteko. Bidaia inizatiko bat duzue hau, perso-  
naiaren barrenera egiten dena eta mutil honen  
bizitzari zentzu bat emanaz etorkizun berri bat  
eskeiniko diona emakumearen laguntzari esker.

María Victoria Morenok galizieraz idazten du eta gazteen arazoak tratatzeko orduan trebezia berezia azaltzen du liburu honetan. 14 urtetik gorako gazteek gustora irakurriko duten liburua dela uste dut, maitasuna, laguntasuna eta adin hauetan hain gus-tagarri diren gaiak ikutzen dituelako oso modu egokian.

Joseba Lopez de Armentia



APIRILA

20

22

15

martizena

eguna

eguna

**HITZALDIA KURTZEBARRIN**

Drogomenpekotasanari nola aurre egin aztertuko da Guraso Eskolan. Hizlaria Txus Congil izango da eta gaia "Zer egin dezakegu gurasook gure seme edo alaba droga inguruan dagoela somatzen badut?" Arratsaldeko 6,15etan Kurtzebarri eskolako liburutegian.

**ODOL EMATEA**

Aretxabaletako Osasun Zentruan arratsaldeko 4,30etatik 8ak bitartean izango da.

**PRENTSAURREKOA**

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak prentsaurrekoa eskainiko du datorren apirilaren 20an. Arratsaldeko 7etan izango da udaletxeko ganbaran.

**DIAPPOSITIBA MANALDIA**

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta Txiapasi buruzko diapositiba emanaldia eskeiniko da Jon Ander Loidiren eskutik. Udaletxe zaharrean arratsaldeko 7etan izango da emanaldia.

23

egukotxa

17

zapatua

**BAKEAREN ALDEKO MARTXA**

Urtero Arantzazura bakearen alde egiten den martxa burutuko da. Parrokian izena eman daiteke Oñatira autobusean joan eta ondoren Arantzazutik bueltatu ahal izateko.

**TXIRRINDULARI LASTERKETA**

1. eta 2. mailako infantilek Aretxabaletako industrialdean izango dute txirrindulari lasterketa arratsaldeko 4etatik aurrera.

**HITZALDIA ALMENEN**

Almen ikastolak antolatuta Gazteak eta Drogak hitzaldia izango da Txus Kongilen eskutik. Almeneko areto nagusian arratsaldeko 6etan emango zaio hasiera.

**ANTZERKIA**

Kultura sailak antolatuta "Arrosako zubia" Kukubiltxo antzerki taldearen obra berria estreinatuko da datorren apirilaren 23an. Ekitaldia arratsaldeko 5,30etan hasiko da Kurtzebarri eskolako aretoan.

21

eguztina

24-25

**TRABESIA IRTEERA**

Murrukixo M. E.ak trabesia irteera antolatu du datozen apirilaren 24 eta 25erako Monje eta Bisaurin mendietara. Horretarako batzar txiki bat egongo da apirilaren 20an 8etan Murrukixoko txokoan.

**LEIBAR**

arraindegia

Mitarte Kalea, 1 -  
Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel Arquero

Dekorazioa:

Soraya Arquero



943 71 20 02

ITURGINTZA



Jose Jabier Irure  
URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**CONSUM EROSKI**

Orain arrandegi  
eta okindegiak, zatoz!

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA



25  
domeka

### KULTUR ERROTA

Kultur errotako ekitaldien barruan oraingoan Amaia Zubiria eta Mai Gorostiagak musika emanaldi bana eskeiniko dute udaletxe zaharrear ilunkara aldera.

28  
egukotxa

### HITZALDIA ALMENEN

Almen ikastolak antolatuta "Prebentzioa eta familia" hitzaldia izango da Txus Kongilen eskutik. Almeneko areto nagusian arratsaldeko 6etan emango zaio hasiera.

29  
eguna

### HITZALDIA

Loramendi Euskara Elkarteak euskararen historiari buruzko hitzaldia antolatu du udaletxe zaharrear arratsaldeko 7etan. Hizlaria Alfonso Martinez izango

## IKASTARROAK

### ARDOARI BURUZKO IKASTAROA

Loramendi Euskara Elkarteak ardoari buruzko ikastaroa antolatu du enologo baten eskutik. Apirilaren 23an emango zaio hasiera eta hiru ostiral jarraituan emango dira klaseak 23, 30 eta maiatzaren 7an. Interesatutako guztiak Loramendiko txokotik pasa daitezela izena ematera.



**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

### Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

### Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

### Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

### Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

## Telebistan atera ni? Bai horixe.



Atxabalta telebistak aurrera darrai. Batzuetan hobe eta hurrengoan okerrago, batzuetan luzeago eta hurrengoan motzago baina aurrera. Zalantzarik gabe askoz errezagoa da kanpotik iritzia botatzea barruan lanean aritzea baino. Gure telebistako langileek nahikoa meritu

daukate. Arazo teknikoei, eguraldi txarrari, jendearen ezetzei... zeri ez diote aurre egin behar!

Atxabalta telebista guztiona da, herritarrontzat egiten delako. Beraz guztion laguntza jasotea merezi dute bakoitzak bere neurrian emanaz, sarritan kamara aurrean ateratzeari baietza esatea nahikoa baita. Askok eskatzea al da bada?

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN





1981. urtean Bainuetxean izan zuen sorrera Oskar garajeak. Hala ere, 1984tik industrialdean kokatu da. Oskar Mulasen, tailarraren jabeak, automozio ikasketak egin zituen. Baina tailerra zabaldu zuenetik, etengabe ikasten eta berrikuntzetara egokitzen egon behar izan du, kotxearen munduak jasaten dituen aldakuntzak ezagutu ahal izateko.

• **Noiz sortu zen Oskar garajea?**

1981ean jarri genuen Bainuetxean, hala ere, industrialdea sortzearekin batera bertan kokatu zen orain 15 urte.

• **Gogorra izan zen hasiera?**

Bai, ilusio handiz eta lan ordu asko sartuta hasi ginen.

## “Egunean egoteko ikastaroak sarri egin behar izaten ditugu”

• **Zein ikasketa burutu duzu?**

Automozioa ikasi nuen, hala ere, ikastaro ugari egin behar izaten ditugu egunean egoteko; kotxeen piezak azkar aldatzen baitira.

• **Noiz izaten da lan gehien tailerlean?**

Udan, jendeak kotxea azterketa egiteko ekartzen duenean.

• **Bezero gehienak zergatik efortzen dira?**

Kolpeak konpondu eta azterketak egiteko.

• **Zein da zuretzat kotxerik gustokoena?**

Audi A4, daukadana.

• **Gasolina ala diesela?**

Gasolina.

• **Aste Santuan non izan zara?**

Hemen inguruan ibili naiz.

• **Parke eolikoari buruz zein iritzi duzu?**

Energia alternatiboak egotea ondo dago baina horrenbeste aparatu hain leku politean jartzea... ez dakit.

• **Eta herri telebistaz?**

Ondo dago, hoberantz joango da gainera.

• **Egarria kentzeko edaririk egokiena?**

Ura.

• **Zenbat telebista behar dira etxe batean?**

Bat bakarra.

• **Platerrik gustokoena?**

Legatza, zizalak...

• **Sukaldari lanak egiten dituzu?**

Bai, elkartean sarri nik gertatzen ditut bazkari-afariak.

• **Munduko zein lekutara bidaiatzea gustatuko litzaizuke?**

Cubara.

• **Telebista ala irratia nahiago?**

Irratia.

• **Zer baloratzen duzu pertsona batengan?**

Zintzotasuna.

• **Etxean baduzu animaliarik?**

Katua.

• **Txakur arriskutsuen inguruan zer uste duzu?**

Txakurraren jabeak ondo hezi behar du bere txakurra.

• **Pesimista ala optimista?**

Optimista.

• **Entzutea ala hitz egitea?**

Entzutea gehiago.

• **Aholku bat.**

Aholkurik ez ematea.

• **Afizioak?**

Goizero Urkulura joatea.

## KOMIKIA



Mikel Arroiabe



# TABERNA eta JATETXEEN GIDA


## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIAK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Express akeitegia

**Express  
akeitegia**

*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43

## Gurea taberna

**Jatetxea eta  
taberna**

**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Arlutz taberna



*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
*• Pannila espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Mendiola erretegia



*Bazkariak  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea



Azata auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

## Amets taberna

**AMETS**

**Taberna eta kafetegia**

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

**Josu harategia**

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA



# ETXE MOBEL

M U E B L E S

ALZARIAK

**LOGELETAN  
maisua**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.

Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxes: 79 41 82

**ARRASATE**